EUSKALDUN ONRAGARRIA

Albert Goyeneche

Gizon bat galdu du Eskual-erriak. Ill onen emezortzian goizaldera, buruz supituki oean ila kausitu dute *Albert Goyeneche,* Donibane-Loitzuneko jaun medikua; Eskual-erri guziak Donibaneko auzapez bezala ezagutzen zuen gizon kartsua.

Berrogei ta amabi urte baizik ez zituen.

Baginakien aspaldi nor eta zer zen bere errian jaun ori. Nor eta zer zen Donibaneko iriarentzat, ongi egile andi zela baginakien, gure ustez. Bainan il denean da ongi agertu, zenbatetaraino barna sartua zen, ororen biotzetan.

Ikustekoa zen egun artan Donibaneko iria: etche guziak dolu-minetan ziren. Ez batzu bakarrik, bainan oro bardin. Adiskideak bezen ongi unkituak ziren.... etsaiak; obeki erran dezagun, *oiko* etsaiak. Ezen amabi urte untan egin dituen ongi andiez bilduak zituen eme-ki-emeki leengo etsaiak eta oro; gizontasunik zuten guziak beretuak zituen, gaizkiaren orde orori beti ongi eginez. Ez baita alakorik az-kenean, biotzen austeko nola gaizkia ongiz garaitzea.

Ba egiazki garaituak zituen *Goyeneche* zenak, arentzat bertze or-duz erraz beterik zagozin guziak; eta erdi garaituak zituen, erran nai baita: *gizonki, giristinoki,* jazarkunde orde, laguntza eginez, bearre-tan ziren guziei; eta den gutieneko mendekiorik neori egin gabe, beti ororekin aalaz bakea bilatuz, eta batasuna.

Eta ain ziren oro bakeari jarriak non erranen baitzinuen, ez zuela irian ez errian Donibaneko jaun auzapezak adiskiderik baizik.

Au ez dute orok errechki sinetsiko; bereziki urrungoek, leengo gudu, gerla eta kalapita izigarrien aipamena oraino bearrietan eta gogoan dakartenek, nai eta ez, uste dukete *Goyeneche* orrek bere aldekoa lagunduz, bertzeak larderiaren pean zauzkala. Ez, ez....

Eta bear dugu aitortu; ¿zer diot? Goraki erran bear dugu: bera gizonki agertu balinbada leengo etsaiei buruz, auiek ere gizonki ooratu dute, il denean. Oletan geienak aspaldiskoan eskuratuak zituen, ongi eginaren bortchaz. Bainan bazuten alere zenbaitek alako aalge bat, beren ezagutzaren erakusteko. ¿Il berria edatu da ba? Ez da gizon bat izatu, ez churi ez gorri, Donibane guzian, erran ez duenik edo erakutsi: zorigaitz eta biotzmin zela erri guziarentzat, olako gizon, mediku eta auzapez baten galtzea.

Eotzi den egunean, are obeki agertu da batasun ori. Mundua an zen, aokian. ¡Erri guzia, eta zenbat gizon auzo errietarik! Bayonatik beretik, gobernamenduko aitzindari gorri oitarik asko; zenbait *judu* ere,... alta *Goyeneche* zenak beinere guti pereketu zituenak. Ek ere an, gizon zuzen, beldurrik gabeko eta gogo azkardun bati ororen-ganik oore zor zaiola erakusterat etorriak.

Eta ¡zer aokia ederra! Zer ichiltasunorok, ilaren etchetik elizaraino, elizatik ila arrietaraino! Jaun erretorak elizan, eta bere lagun eta adiskide zaarrek il-obiaren aizinean egin diozkate adioak.

Eder eta atsegin baitzen entzutea, erriko amaina, predikalkitik goraki erraten: beti *Goyeneche* auzapezak erretora lagundu duela; beti bere burua bear-orduetan erakutsi duela erlisionearen alde; bere obra on guzietan beti erriko leen ezagutu duela, buruz, biotzez eta eskuz ongiaren laguntzaile. Biek elgarrekin bat eginez, asko makur chuchendu dutela, ongi asko egin; eta batasun oso orri esker, geiago eginen zutela, ez balu Jainkoak auzapeza bere ganat deitu.

¡Zeruan izan dedila!

(Eskualduna)